

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Whiskya eta filosofia

ABERFELDY, ESKOZIA, 1733. Tay ibaia, Eskoziako ibairik luzeena, zeharkatzen zuen lehen zubia eraiki zuten. Ordura arte whiskya monasterioetan edo mendian galduta bizi ziren familietan egiten zuten edabe sekretua zen; komunikabideak hobetuta, ordea, Highlands-eko inguruetan whisky ekoizpena garatzen hasi zen. Gainera, zerealak ziren Aberfeldyko ekonomiararen oinarri eta bertako ura egokia zen destilaziorako.


Aberfeldyn bertan, 1805ean jaio zen John Dewar, lau hamarkada geroago whisky negozio oparoa sortuko zuen gizona. Dewarrek osagai naturalagoak erabiltzen zituen: Pitilie Burn erreka ura eta kalitate handiko zerealak. Berehalak egin zuen gora negozioak.

Arrakasta horretan zeresan handia izan zuen filoxera izeneko intsektu txikiak. 1860 eta 1880 urteen artean zomorroak kalte handiak eragin zituen Frantziako mahastietan. Izurriak cognac ekoizpenean izan zuen eraginik handiena. Urte gutxian whiskyak cognac ordezkatu zuen burges ingeles zintzurtean.

John hil ondoren, haren seme Alexander eta Tommyk zuzendu zuten enpresa. Sei urtean %25 egin zuen gora ekoizpenak. 1891n lehen botilek Atlantikoa zeharkatu zuten, Etxe Zurira, Benjamin Harrison presidentearen eskuetara iristeko. Espor-

tazioa hasi zen. 1898. urtera arte, ez zuen inork inoiz edari baten iragarkirik filmatu. *Dewar's. It's Scotch* leloa zuen 35 segundoko lehen iragarki hark.

Baina Tommy Dewar ez zen negozioz mugatu. Londresko gobernadore zibila izan zen eta, arte bildumatzailerle, filantropo eta idazle izateaz gain, bizi filosofia berri bat sortu zuen: dewarismoa. Filosofia horren arabera bizitzaz goza daiteke, arrakastari muzin egin gabe. Pentsamendu korronte moduko horrek plazer txikien garrantzia nabarmendu zuen; plazer txiki horien artean, noski, tarteka baso bete whisky hartzea.



Goiko argazkian, Tommy Dewar, John Dewar whisky enpresaren sortzailearen semea eta dewarismoaren aita. Azpian, Dewar's White Label, markaren produkturik ezagunena.

20ko hamarkadan dewarismoak jarraitzaile ugari lortu zituen. Baina enpresaren edari ekoizpena behera joa zebilen: Lehen Mundu Gerran Aberfeldyko destilategia itxi behar izan zuten. 1919an berriro zabaldu eta handik urtebetera AEBetako alkoholaren debekua iritsi zen. Kolpe handia izan zen Dewar's-entzat; 1962. urtea arte enpresaren ekoizpena oso txikia izan zen.

2002. urtean bost milioi botila ekoitzi zituzten. Egun, zinema izar John Malkovich edo Quentin Tarantino ageri dira whisky honen iragarkietan. "Dewarismoa naiz" dioten elastikoa dute soinean eta Tommy Dewarren esaldirik ezagunena azpian: "*Suffering is not the Key to Success*" (Sufrimendua ez da arrakastaren giltza). ■

ARRASTOAK

UNDERCOVER: *Operation Wintersun* du izena Planeta DeAgostinik merkaturatu berri duen bideo-jolasak. Bigarren Mundu Gerran dago girotua; John Rusell zientzialari britainiarra Berlingo bihotzean sartuko da, misio arriskutsu bat medio.

Zientzialari naziak fisika nuklearraren aplikazioak gerrarako garatzen ari dira eta MI-6 zerbitzuak ikerketa horiek gerarazteko lana eman dio Ruselli. Abentura grafiko honetan fikzioa eta zehetasun guztiz historikoak nahasten dira.

